

# LANBIDE FAMILIEN HIZTEGIA

Lanbide familia jakin bateko termino-zerrendak deskargatu jakinbai.eus-etik

*Erronketan, ariketetan, teoria ematean...lanbide familiaren terminologia eskura izateko*

# Alor jakin bateko termino-zerrendak esportatzen


**LANEKI** hiztegiko alor edo familia jakin bateko termino-zerrendak esportatzeko hiztegiaren kudeaketa-atala erabiltzea gomendatzen da. Horretarako, nahikoa doa sisteman izena eman eta helbide honetara joatea: <http://hiztegi-kudeaketa.jakinbai.eus/>

Helbide horretan **Sareterm** izeneko tresna aurkituko dugu. Tresna honek, **LANEKI** hiztegiko eduki guztietara sarbidea emango digu, eta edukiak kudeatzeaz gain informazioa modu errazean kontsultatzeko hainbat baliabide ere eskaintzen dizkigu, besteak beste esportazioak egiteko sistema.

Esportazioak egiteko modu bat baino gehiago dago baina ohiko bidea bilaketa bat egin ostean emaitzak fitxategi batera esportatzea izango da. Horretarako ondoko urratsak jarraitzea gomendatzen dugu

## 1. Esportatu nahi diren edukiak bilatu:

Bilaketa hau egiteko modu asko daude, baina errazena Kontzeptuen bista-pantaila erabiltzea da. Pantaila honetara (<http://hiztegi-kudeaketa.jakinbai.eus/concepts/>) pantailaren gainaldean dagoen menutik iristen da, **Views -> Concepts** klikatuz.



| <input type="checkbox"/> | Concept id | eu  | es  | Dictionary |
|--------------------------|------------|---|---|------------|
| <input type="checkbox"/> | 1          | langabeziagaritiko prestazio; langabeziako prestazio; langabezia-prestazio; langabezia-sari | prestación por desempleo; subsidio de desempleo; subsidio de paro | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 2          | sistema   | sistema   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 3          | modem   | módem   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 4          | formatu   | formato   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 5          | ataka paralelo  | puerto paralelo   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 6          | multiplexadore  | multiplexor   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 7          | eremu-bus   | bus de campo  | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 8          | sistema eragile   | sistema operativo   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 9          | kontrol-sistema   | sistema de control  | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 10         | kandentsadore   | condensador   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 11         | egia-tailla   | tabla de verdad   | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 12         | askaner   | escáner; scanner  | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 13         | helbide-bus   | bus de direcciones  | LH         |
| <input type="checkbox"/> | 14         | data-bus  | bus de datos  | LH         |

Pantaila honetan hiztegiko eduki guztiak zerrendatzen dira. Gure kasuan, interesatzen zaigun familiakoak bistaratzea izango da hurrengo urratsa. Horretarako nahikoa da eskuinaldean dagoela bilaketa-botoia sakatzea (lupa) eta **Domain** atalean nahi dugun familia zehaztea. Gure adibidean "Ehungintza" aukeratu genuke, eta jarraian **Bilatu** botoi berdeari eman

The screenshot shows a web interface titled 'Concepts'. At the top right, there is a search icon and a button labeled 'Ekintza'. Below this, there are four input fields: 'Term' (empty), 'Language' (set to 'Enea'), 'Dictionary' (set to 'Enea'), and 'Domain' (set to 'Ehungintza'). To the right of these fields are two buttons: a red one labeled 'Garbitu' and a green one labeled 'Bilatu'. Below the filters is a table with the following data:

| Concept id | eu  | es  | Dictionary |
|------------|---|---|------------|
| 1          | langabeziagatiko prestazio; langabeziako prestazio; langabezia-prestazio; langabezia-sari | prestación por desempleo; subsidio de desempleo; subsidio de paro | LH         |
| 2          | sistema   | sistema   | LH         |

Segundo gutxitan aukeraturiko familiako termino guztiak zerrendatuak ikusiko ditugu.

## 2. Esportatu nahi diren terminoak aukeratu

Terminoen zerrendako lehen zutabeak taulako lerroak aukeratzeko balio du. Gure kasuan lerro guztiak aukeratzeko interesatzen zaigunez, nahikoa izango da taulan burukoan lehen zutabearen dagoen gezitxo urdina sakatu eta **Select all pages** sakatzea. Automatikoki taulako lerro guztiak aukeratuak bezala markatuko dira

## 3. Esportazioa egin

Termino guztiak aukeratuak ditugula, **Ekintza -> Export** klikatu behar dugu esportazio aukerak ikusteko. Leihu berri bat irekiko zaigu, esportazioan zehaztu beharreko hainbat parametro finkatzeko:

- Esportazio-formatua: sistemak bi esportazio-formatu eskaintzen ditu, **CSV** eta **TBX**.
  - **CSV**: Informatika esparruan CSV fitxategiak (ingelesez, *comma-separated values*) taula itxurako datuak gordetzeko [formatu irekia](#) da. Kalkulu orrien arteko datu trukerako erabiltzen da eta oso formatu sinplea da: zutabeak koma bidez bereizten dira eta lerroak lerro-jauzien bidez. Gure inguruan eta, oro har, koma dezimalen bereizle gisa erabiltzen den tokietan formatu honen aldaera bat erabiltzen da non zutabeak puntu eta koma edo tabuladorearen bidez bereizten dira. Kalkulu orri baten bidez, hala nola LibreOffice Calc edo Excel bidez, CSV formatuko fitxategi bat irekitzean aplikazioak berak galdetuko digu zein bereizle mugatzen ditu datuak.
  - **TBX**: **XML** formatu jakin bat definitzen du terminologia-datuak trukatzeko, eta terminologia-trukean estandar klasiko bat da.

Gure gomendioa CSV formatua erabiltzea da, ulerterrazena izateaz gain ohiko aplikazioekin modu errazean landu daitekeen formatua baita.

Views ▾ Bilatu ▾ Imports ▾ Export

## Export

### Export format

Format

CSV ▾

### Filter exportation

Language

Items

|                                     |                   |
|-------------------------------------|-------------------|
| <input checked="" type="checkbox"/> | Item              |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Concept           |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Term              |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Domain            |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Definition        |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Definition source |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Info              |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Info2             |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Related concept   |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Article           |
| <input checked="" type="checkbox"/> | Irudia            |

Close Export

- Esportatuko den informazioa: kontzeptu bakoitzeko zein hizkuntzatako terminoak eta termino bakoitzeko zein informazio esportatu nahi den zehazten da.

- **Hizkuntzak** (Language): zein hizkuntzatakako terminoak esportatu nahi diren zehazten da. Gure gomendioa euskara (eu) eta gaztelania (es) beti aukeratzea da.
- **Edukiak** (Items): termino bakoitzeko esportatu nahi den edukia zehazten da:
  - **Kontzeptu-identifikadorea** (Concept)
  - **Terminoak** (Term)
  - **Familia edo domeinua** (Domain)
  - **Definizioa** (Definition): *Hiztegi honetan ez dugu printzipioz hau erabiltzen*
  - **Definizio-iturria** (Definition source): *Hiztegi honetan ez dugu printzipioz hau erabiltzen*
  - **Informazioa** (Info): Kontzeptuari loturiko informazio publikoa: *Hiztegi honetan ez dugu printzipioz hau erabiltzen*
  - **Informazioa 2** (Info2): Kontzeptuari loturiko informazio pribatua: *Hiztegi honetan ez dugu printzipioz hau erabiltzen*
  - **Kontzeptu erlazionatua** (Related concept): *Hiztegi honetan ez dugu printzipioz hau erabiltzen*
  - **Artikulua** (Article): *Hiztegi honetan ez dugu printzipioz hau erabiltzen*
  - **Irudia** (Image)
  - **Testuinguruak** (Contexts)

Esportazioarekin egingo den erabileraren arabera erabaki beharko da zein informazio komeni den. Dena den, gure gomendioa informazio guztia esportatzea da, gero esportazioa edozein testu editoreren bidez egokitzeke aukera egongo baita.

Aukera guztiak zehaztean, **Export** botoia sakatu eta segundo batzuen ostean **.csv** fitxategi bat deskargatzeko aukera emango zaigu. Fitxategi hori nahi dugun kokalekuan deskargatu ahal izango dugu gero lokalean lan egin ahal izateko.

## 4. Esportazioa ireki eta editatu

Esportazioak bistaratzeko **LibreOffice** paketeko **Calc** aplikazioa erabiltzea gomendatzen dugu. Bigarren aukera bezala **Microsoft**-en **Excell** aplikazioa ere erabili daiteke, baina esportazioa irekitzeko prozedura konplexuagoa da.

## 4.1 LibreOffice Calc

Dokumentua ireki bezain laster aplikazioak ondoko leihoa erakutsiko digu. Bertan ondoko bi gutxienez ondoko bi aukerak egiten ditugula ziurtatu beharko dugu:

1. Karaktere-kodeketeak *UTF-8* izan beharko du
2. Banatzaileen artean *tabulatzaileak (tab)* aukeratua egon beharko du

Aukera hauekin dokumentua irekiz dena behar bezala ikusiko dugu

**Text Import - [20201009-142346.csv]**

**Import**

Character set: Unicode (UTF-8)

Language: Default - Spanish (Spain)

From row: 1

**Separator Options**

Fixed width  Separated by

Tab  Comma  Semicolon  Space  Other

Merge delimiters  Text delimiter: "

**Other Options**

Quoted field as text  Detect special numbers

**Fields**

Column type:


|   | Standard   | Standard                 | Standard              | Standard |
|---|------------|--------------------------|-----------------------|----------|
| 1 | Concept_id | es                       | es                    | es       |
| 2 | 1          | prestación por desempleo | subsidio de desempleo | subsidio |
| 3 | 10         | condensador              |                       |          |
| 4 | 100        | cambio de estado         |                       |          |
| 5 | 11         | tabla de verdad          |                       |          |
| 6 | 12         | escáner                  | scanner               |          |
| 7 | 13         | bus de direcciones       |                       |          |
| 8 | 14         | bus de datos             |                       |          |

Help OK Cancel

## 4.2 Microsoft Excell

Microsoft Excell bidez CSV fitxategi bat ireki eta behar bezala bistaratzeko ondoko urratsak jarraitu beharko dira (azalpenetan erabilitako bertsioa: *Microsoft Office Excel 2007*):

1. Eskuineko erlaitzean **Testurik** sakatu. Bilatzaile bat irekiko da eta bertan ireki nahi dugun CSV fitxategia aukeratu beharko dugu.



2. Asistente bat ikusiko dugu, urraska CSVa behar bezala irekitzen lagunduko diguna. Lehendabizi zutabe bereizlearen informazioa zehaztu beharko dugu. Pantaila honetan nahikoa izango da **Mugatua** aukeratzea, datuak zutabe bereizle bat dutela identifikatzeko. Jarraian fitxategiaren kodeketa ere definitu beharko dugu (**Fitxategiaren jatorria**), gure kasuan **Unicode (UTF-8)** aukeratu beharko dugu. Behin bi aukera hauek zehaztuta **Hurrengoa** sakatuko dugu asistentearen hurrengo urratsera joateko.

- 3.

n zutabe bereizlea zein zehaztu ahal izango dugu. Gure kasuan tabuladorea dela zehaztu behar dugu, horretarako **Tabulazioa** aukeratu. Asistentearen hurrengo urratsa ez da beharrezkoa, beraz kasu honetan **Amaitu** sakatuko dugu.

Testua inportatzeko morroia - 2 / 3 urratsa

Pantaila honetan testuak dituen mugatzaileak zehazten dira. Testuan duten eragina ikus dezakezu beheko aurrebistan.

Mugatzaileak

Tabulazioa

Puntu eta koma

Koma

Zuriunea

Beste hau:

Elkarren ondoko mugatzaileak bat balira bezala tratatu

Testu-kualifikatzailea:

Datuen aurrebista

| Concept_id | es      | es | eu      | eu | Domain     | Related | Info | Info2 | Definition | Definit |
|------------|---------|----|---------|----|------------|---------|------|-------|------------|---------|
| 11296      | estudio |    | estudio |    | Ehungintza |         |      |       |            |         |
| 11297      | brillo  |    | distira |    | Ehungintza |         |      |       |            |         |
| 11298      | viscosa |    | biskosa |    | Ehungintza |         |      |       |            |         |
| 11299      | zapato  |    | zapata  |    | Ehungintza |         |      |       |            |         |

Utzi   < Atzera   Hurrengoa >   Amaitu

Hiru urrats hauek behar bezala jarraituz *CSV* fitxategiak *Excellean* irekitzea lortuko dugu, eta zutabeak eta ikur bereziak behar bezala ikusi ahal izango ditugu.